

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net – www.donostia.org
20003 Donostia

Jakinarazpena:

Irabazi xederik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko **behin betiko erabakia**
2012-02-29an onartutako deialdiarena

Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko abenduaren 7an ondokoa onartu du:

2012ko otsailaren 29an argitaratu zuen Donostiako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, irabazi asmorik gabeko entitate edo elkartei laguntza emateko 2012 urteko diru laguntzen deialdia. Deialdi horretan jasotzen dira Euskara Zerbitzuak Donostiako "Euskararen Plan Orokorra (2011-2015)" garatzeko 2012. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak 2012.

Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskariak aztertu eta diru laguntzen banaketa egiteko erabilitako irizpideak kontuan harturik, irabazi asmorik gabeko elkarteentzako emakidak zehaztu dira, oinarri orokorretako III. atalean zehaztatutako prozedurari jarraiki. Horrela, izapidegileak eskaerak baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak dagozkion txostenak egin ditu. Dokumentu honi erantsita doaz balorazio irizpideak eta entitate bakoitzari emandako puntuaketa. Espedientearen eta Balorazio Batzordearen txostenen argitan izapidegileak behin-behineko proposamenak egin ditu.

Oinarri orokorretako 9. artikuluan zehaztutakoarekin bat, behin-behineko ebazpen proposamena egin ondoren interesatuei jakinarazi eta 10 eguneko epea eman zaie egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Epealdi horretan ez da inolako alegaziorik jaso, eta behin-behineko proposamenean geratu zen 147,68 euroko diru-soberakina era proportzionalen guztien artean banatu ondoren, ondorengo zerrendan agertzen diren kopuruak dira behin betikotzat joko direnak.

Guztira 31 elkarteren eskaerak jaso dira eta eskaera egiteko baldintzak denek betetzen dituztenez, guztien eskaerak aztertu dira. Eskaera horietatik, 27 elkarte/entitate diruz laguntzea eta beste 4ri diru laguntza ukatzea proposatzen da. Elkarte bakoitzaren ondoan agertzen da dagokion diru kopurua edo diru laguntza ukatzeko ematen diren arrazoiak.

Horiek horrela, oinarri orokorretako 9. artikuluen 3. puntuaren arabera, Balorazio Batzordeak egindako txostenaren eta elkarteentzako espedientearen argitan Kulturako eta Euskarako ordezkariak honako erabakiak hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK

1.- Ondoren zerrendatzen diren elkarte eta entitatei diru laguntza emakida hauek onartzea:

1. ADEVE (ASOCIACIÓN PARA LA DEFENSA DE LAS ESPECIES

EN VÍAS DE EXTINCIÓN)	G48305783	155,77 €
2. ANTETA TTAN TTAKUN	G20511911	1.371,79 €
3. ARRANO BELTZA EUSKALTOKIA	G20070835	1.320,54 €
4. ARRANO ELKARTEA	G20195442	915,75 €
5. ASOCIACION TALLER DE ARTES ESCENICAS	G20539185	566,51 €
6. ASTINDARI TOPALEKUA	G20363016	703,48 €
7. CICLO INTERNACIONAL DE CINE SUBMARINO	G20314357	771,18 €
8. ERETI ZUHAIZTIKO GURASOEN ELKARTEA	G20227211	675,25 €
9. EUSKARAK BATZEN Donostiako Euskararen Gizarte Mugimendua	G20776100	1.969,75 €
10. EUSKO IKASKUNTZAREN ASMOZ FUNDAZIOA	G20735288	1.554,70 €
11. EZIKO S. COOP	F20068151	536,11 €
12. GIMNASIA RITMICA DONOSTI, CLUB	G20189213	376,87 €
13. GUKMEDIA KULTUR ELKARTEA	G31952666	718,76 €
14. HARRESIAK APURTUZ	G48884522	195,97 €
15. HELDUAK ASOCIACION	G20520656	452,24 €
16. HIK HASI EUSKAL HEZIKETARAKO ELKARTEA	G20772513	4.019,90 €
17. IKASBIDE KULTUR ELKARTEA	G20094884	1.175,82 €
18. KIRIKINOA ATSEDEN TALDEA	G20465837	1.205,97 €
19. LAUAIZETA-SIBILA GURASO ELKARTEA	G20578126	738,66 €
20. LOIOLAKO HONTZA KULTUR ELKARTEA	G20595146	557,76 €
21. MAMUR AISIALDI TALDEA	G20702049	171,85 €
22. MEDINA, ASOCIACIÓN CULTURAL DE MUJERES MUSULMANAS	G75054940	1.205,97 €
23. PLAZARA GOAZ, INTXAURRONDOKO EUSKARA BATZORDEA	G20715371	904,48 €
24. SARROETA AUZO ELKARTEA	G20403408	452,24 €
25. SEXUNE ELKARTEA	G01363027	289,43 €
26. TTAN TTAKUN EUSKAL ELKARTEA 106,8FM	G75001263	1.829,06 €
27. ZURRIOLA ANTZERKI ESKOLA	G20736377	4.994,19 €

2.- Ondoren zerrendatzen diren elkarten eskariak baztertzea, ondoko arrazoiengatik:

1. ASOCIACION ESTUDIANTIL KIBBER
Arrazoa: Ez dute jarduera burutuko.
2. BAGERA
Arrazoa: Zuzeneko dirulaguntza ematen zaie.
3. DECEBAL
Arrazoa: Duela bi urte diruz lagundutako proiektu bera da.
4. MUSIKOPORRAK SORMEN ELKARTEA
Arrazoa: Gazteria Sailak lagunduko du aurkeztu duten defizita osoa estaltzeko.

3.- Diru laguntzen oinarri orokorretako III. atalean eta oinarri espezifikoetako 10. artikuluan adierazitakoarekin bat, interesatu guztiei erabakia jakinaraztea eta 1. puntuaren zerrendatutako elkarte eta entitateei diru laguntzaren ordainketa bi zatitan egitea: diru

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxe 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net – www.donostia.org
20003 Donostia

laguntzaren %70 behin betiko emakida onartzen den unean bertan ordainduko da, arauzko izapideen arabera, eta gainontzeko %30a diruz lagundutako programaren edo jardueraren zuriketa egiterakoan. Zuriketa hau diru laguntzen deialdiaren 16. artikuluan jasotzen den dokumentuen bidez egin beharko da 2013ko martxoaren 27a baino lehen.


4.- Dirulaguntzen oinarri orokorretako 11.4 atalean jasotzen den eran, eskatzaileei banan-banan jakinaraziko zaie ebazpen honen edukia, eta hamabost eguneko epea izango dute, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berariaz ukorik adierazten ez badute.

5.- Guztira, 29.830 euroko diru-kopurua erabiltzea eta kopuru hori Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren 2012ko aurrekontuaren 481.01 kontu sailari egozte.

Eta hala jakinarazten da, behar diren ondorioetarako, eta adierazten da erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsua jarri ahal izango dela Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea dagolea, edo bestela zuzenean aurkatu daitekeela bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak interesatuak jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasiko dira.

Donostia, 2012ko abenduaren 11n



Edurne Otamendi Garmendia
Euskara Zerbitzuaren burua